




DBH4



FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Jane Austen

IZENBURUA: *Watsondarrak*

ILUSTRATZAILEA: Sara Morante

ITZULTZAILEA: Ana Isabel Morales

ARGITALOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Berriozar, Denonartean, 2014

ORRIALDE KOPURUA: 129

ISBN: 9788415756378

ADIN TARTEA

16 urtetik aurrera

IRUZKINA

Emakumea bere lekua bilatzen, gizarte viktoriarren erdian. Halaxe laburbildu daiteke Emma Watsonen bidez eleberri honek kontatzen digun pasadizoa.

Emma itzuli berri da bere gurasoen etxera, osaba aberats hilberriarekin 14 urte bizi izan ostean. Emmaren aita herriko apaiza da, eta honi esker goi mailako familiekin harremanetan jartzeko aukera dute. Emma iritsi berriak inguruko herritarrekin dituen topaketak dira liburuaren kontagaiak, aspaldiko partez biziko duen etxeko giroarekin batera.

Narratzaileak prosa dotorea erabiltzen du, irakurteraza eta eraginkorra. Protagonista ere pertsona behatzailea da, bere pentsamenduak gorde eta gainerakoan aurrean diskrezio handiarekin jokatzen duena. Guztiarekin garai viktoriarrean giza harremanak nola ehuntzen ziren ezagutuko dugu, ezkontza, familia eta gizarte sarea bezalako alorretan, emakumea ardatz dugularik.

Nagusiki bi familia agertzen dira, Watsondarrak eta Ewardstarrak, eta inguruan beste hainbat pertsonaia daude, esaterako Tom Musgrave dandya. Aipagarria da herri xehea



ez dela agertzen, eta ez direla ia aipatu ere egiten derrigorrez haien inguruan dabilzan zerbitzariak.

Bukatu gabeko eleberri bat denez, amaieran ohar batzuk agertzen dira, idazleak obrari eman nahi bide zion norabidea argitzen. Ilustrazioak berebiziko ekarpena egiten dio irakurketari tonu egokia ezartzen.

IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

1. Irakurketa sustatzeko ariketak

α. Telesail bat ikusi giroan sartzeko. * Adibidez, *Downton abbey* (gazt.).

β. Pasarte bat boz gora irakurri. Adibidez: 106110 orr. Zehazki 106. orrialdeko bigarren paragrafotik (“une horretan kotxe baten...”) 110 orrialdeko lehen paragrafoa amaitu arte (“...txundituta.”). Pasarte laburra da, pare bat minutuan irakurtzekoa, tartean ilustrazioak baitaude.

γ. Liburua irakurri ondoren, garaiko gizarteari buruzko iritziak ematen has liteke, garai hartako gazteen bizimoldea eta norberarena alderatuz.

* Komenigarria da irakurketa aurretik partaide bakoitzak zeregin bat izatea irakurketa bitartean osatzeko. Esaterako pertsonaien zerrenda eta harreman sarea osatzen lagunduk duten zereginak.

2. Idazlea: Jane Austen (1775/1817).

α. Biografia txukuna, [ingelesez](#) zein [frantsesez](#), wikipedian.

β. Garaiko literatura. Idazle garaikideen literatura arakatu.

* Adibidez: *Frankenstein* / Mary Shelley. 1818”